



Debarreneko Garapen Agentziaren hizkuntza-irizpideak

Esku-liburua

2022ko abendua



Debarreneko Garapen Agentzia

Aurkibidea

Zer da dokumentu hau?.....	3
Erakundearen irudia eta komunikazioa	4
Bezeroekiko eta herritarrekiko harremanak.....	7
Barne-komunikazioa	10
Lanpostuetako hizkuntza eskakizunak.....	12

Zer da dokumentu hau?

Dokumentu hau euskararen normalizazioaren aldeko apustua egiten duen esku-liburua da, eta langile, bezero, erabiltzaile eta hornitzaile euskaldunen eta erdaldunen hizkuntza eskubideak bermatzen ditu.

Debegesak, Debabarreneko Garapen Agentziak, bazkide fundatzaile ditu eskualdeko udalak 1/8ko akzio-ekarpenarekin. Horregatik, **agentziak, udalek bezala, eredu izan behar dugu herritarren aurrean euskarari lehentasuna emanez** eta euskararen normalizazio prozesuan eragile izateko.

Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea, 1985ean sortu zen Debabarrena **eskualdean garapen jasagarria sustatzeko helburuarekin**. Xede honekin, hobekuntza-ekintza zehatzak bideratzen ditugu, eskualdeko beharrei erantzuteko. Debegesan zerbitzua eskaintzen diegu: enpresei, udalei, ekintzaileei eta herritarrei. Horretarako, udalekin, foru-aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Espainiako Gobernuarekin eta Europar Batasunarekin elkarlanean dihardugu.

Euskarak beti izan du presentzia Debegesan eta enpresak berak euskararekiko jarrera baikorra eta sentsibilitate berezia izan ohi du. Enpresaren nahia hiztun guztiekiko begirunez jokatzea izan da eta euskararen aldeko lana egin izan dugu lantaldean. Hori horrela, **Debegesak eredu izan behar du herritarren aurrean** euskarari lehentasuna emanez eta euskararen normalizazio prozesuan eragile.

01

Erakundearen irudia eta komunikazioa

1. Logoa eta identifikazio elementuak

- Debegesaren **logotipoak testua euskaraz** du: Debegesa (agentziaren izena) eta Debabarreneko Garapen Agentzia (garenari egiten dio erreferentzia, euskaraz).
- **Paperari** dagokionean (karpetak, bisita txartelak...), euskarari ematen zaio lehenetsuna beti, eta helbidearen kasuan euskara hutsean idatziko da (Azitain industrialdea 3 bis, 20600 Eibar) hizkuntza bakarrean idatzi behar denean.
- Bestalde, **proiektu edo egitasmo berriak** sortzerakoan, izena euskara izatea lehenetsiko da, Heldu!, esaterako.
- **E-posta** helbideei dagokienean ere, helbide berriak sortzerakoan, hitz neutroak edota euskarazko hitzak erabiliko dira (kontabilitatea@, idazkaritza@, hirigintza@...)
- Barruko zein kanpoko **paisaia linguistikoa** zainduko dugu; errotulazioak, oharra eta seinaleak bi hizkuntzatan idatziko dira, euskara lehenetsiz. Euskarazko eta gaztelaniazko hitzak antzekoak direnean edo euskarazko hitza ezaguna den kasuetan, euskaraz soilik idatziko da.
- **Kanpo errotulazioa:** Debegesako kanpo errotulazioa, euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, eta euskara lehenetsiko da beti.

2. Ekitaldi publikoak

- Ekitaldiko hartzaileek eta hizlariak euskaraz dakitenean, ekitaldia euskaraz egingo da.
- Hizlariak euskaraz ez dakienean (Debegesako langilea edo kanpokoak), sarrera lehendabizi euskaraz egingo da (agurra, ongietorria eta ekitaldia egiteko arrazoiak).
- Hizlariak euskaraz dakienean baina hartzaileetako batzuk euskaraz ez dakitenean harrera lehendabizi euskaraz egingo da (agurra, ongietorria eta ekitaldia egiteko arrazoiak) eta hartzaileei euskaraz parte hartzeko aukeraren berri emango zaie.
- 18 urtetik beherako gazte edo haurrei zuzenduta baldin badago, ekitaldia nagusiki euskaraz egingo da betiere, herri bakoitzeko errealitate linguistikoa kontuan hartuta.
- Herritarren gehiengoa euskalduna dela dakigun kasuetan, ekitaldiaren erdia gutxienez euskaraz egingo da (aurrez ekitaldiaren antolatzaile edo kudeatzaileari gure asmoen berri emanda), eta euskaraz egiten den zatietan ulermena ziurtatzeko gaztelaniazko euskarriak prestatuko dira (aurkezpena adibidez).

3. Prentsaurrekoak

- **Prentsaurrekoetan azalpenak** nagusiki euskaraz emango dira. Bukaeran, laburpena gaztelaniaz egingo da eta ondoren, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz banatuko zaie.
- **Hizlariak euskaraz ez dakienean** (Debegesako langilea edo kanpokoa), sarrera (agurra, ongietorria eta ekitaldia egiteko arrazoiak) lehendabizi euskaraz egingo da.
- Ekitaldi hauetako **dokumentazioa**, euskaraz eta gaztelaniaz banatuko da.

4. Azokak

- **Jendearekin erlazioak:** bertan egon behar duten pertsonak euskaraz jakitea bermatuko da. Lehenengo hitza beti euskaraz egingo da eta solaskideak hautatzen duen hizkuntzan (euskaraz nahiz gaztelaniaz) jarraituko du harreragileak.
- **Erakusgai dagoen materiala eta antolaketa:** Debegesak eramaten duen materiala euskaraz ere egongo da. Euskarari lehentasuna emango zaio; euskarazko bertsioa har dezaten sustatuko da hemengoak direnean.

02 Bezeroekiko eta herritarrekiko harremanak

1. Dokumentu idatziak

Debegesak kanpora idazten dituen dokumentuak luzeak edo laburrak izan (foiletoak, kartelak, gidak, planoak, aktak, txostenak gutunak etab.), beti euskaraz eta gazteleraz egongo dira idatzita eta gainera, euskara lehenetsiko dute. Zehazki, horrela antolatuko da informazioa ondorengoko euskarrietan:

- **E-posta bidezko mezu ofizialak**¹: euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.
- **Ofizialak ez diren e-posta bidezko mezuak**: hartzaileak euskaraz dakien kasuan, mezuak euskaraz bidaltzea sustatuko dugu. Debegesako langileak euskaraz idazteko zailtasunak dituen kasuetan, gutxienez sarrerako eta bukaerako agurra euskaraz idatziko ditu.
- **Gutun ofizialak**: euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Bi zutabetan idazten badugu, ezkerrean euskaraz eta eskuineko zutabeetan gaztelaniaz. Bata bestearen atzean jarraian idazten baditugu, lehenengo euskaraz eta ondoren, gaztelaniaz.
- **Akta eta bilera-deiak**: formatu bakarra bi hizkuntzatan, euskarari lehentasuna emanda.
- **Prentsa oharrak**: bi hizkuntzetan egingo dira lehenengo euskaraz eta gero gazteleraz. Euskarazko komunikabideetara bidaltzen ditugun prentsa oharrak euskara hutsean egingo ditugu. Bestelakoetan, euskaraz eta gaztelaniaz egingo ditugu, lehenengo euskaraz eta ondoren, gaztelaniaz.
- **Bestelako dokumentazioa**: bi hizkuntzatan egongo da.
- Dokumentazio orokorra: hornitzaileekin erabiltzen dituen **inprimakiak euskaraz eta gaztelaniaz** egongo dira, euskara lehenetsita (hornitzaileak homologatzeko inprimakia eta eskaera egiteko orria). Kontratutako hornitzaileak eman beharreko zerbitzuaren arabera, enpresa horrek DEBEGESAren hizkuntza irizpideak bete beharko ditu.

2. Bilerak

Udal eta bestelako erakunde publikoetako ordezkariekin izaten ditugun bileretan euskaraz dakiten kasuan (ulermena ziurtatuta dagoenean), bilera euskaraz egingo da. Debegesako langileak euskaraz ulertu bai baina hitz egiteko zailtasunak dituen kasuan, sarrera gutxienez euskaraz egingo du eta euskaraz ulertzen duela jakinaraziko du, nahiz eta gaztelaniaz egingo duela adierazi.

Herritarrekin izaten ditugun bilerak ere, Debegesako langileek nahiz herritarrek euskaraz dakiten kasuan, bilera euskaraz egingo da. Debegesako langileak euskaraz ulertu bai baina hitz egiteko zailtasunak dituen kasuan, sarrera gutxienez euskaraz egingo du eta euskaraz ulertzen duela jakinaraziko du, nahiz eta gaztelaniaz egingo

¹ *Mezu ofizialak dira DEBEGESAren izenean, edo Zuzendariaren izenean, bidaltzen diren mezuak, hartzailea ezaguna ez denean edota hartzaile bat baino gehiago dagoenean.

duela adierazi, eta herritarrak euskaraz parte hartzera gonbidatuko ditu. Euskaraz egiten dutenei, erantzun laburrak euskaraz ematen saiatuko da.

Herritar batzuk euskaraz ulertzen ez duten kasuan, bileraren sarrera euskaraz egingo da eta herritarrei euskaraz parte hartzeko aukeraren berri emango zaie; euskaraz egiten duen herritarrari euskaraz erantzungo zaio.

Bestalde, bilerako kideak euskaldunak badira bilerako euskarriak euskaraz prestatuko dira eta bestelakoetan euskararen presentzia bermatuko da (hartzaileen artean euskaldun eta erdaldunak baldin badaude, eta bilera nagusiki gaztelaniaz egiteko asmoa badago, bilerako aurkezpena nagusiki euskaraz egotea bultzatuko da).

03 Barne komunikazioa

Barne-komunikaziorako kanpo errotulazioan ezarritako irizpide berdina jarraituko dugu. Enpresaren barne errotulazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, eta euskara lehenetsiko dugu.

- Debegesako langile guztiei zuzendutako **mezu orokorrak** euskaraz eta gazteleraz idatziko dira.
-
- Lan-bilerak: Bilerako **partaideak euskaldunak** badira **bilera euskaraz egitea bultzatuko** da. Bilera antolatzen duena arduratuko da hizkuntza irizpidea gogorarazteaz eta bilera euskaraz hasiko du. Akta jasotzen den kasuetan, euskararen erabilera zenbatekoa izan den jasoko da.

04 Lanpostuetako hizkuntza eskakizunak

Aldi baterako lanak egiteko lan-kontratuko langileak hartzerakoan edo praktikak egiteko ikasleak hartzerakoan **euskararen ezagutza** eskatu egingo da. Edozein lanposturako EGA azterketa edukitzea eskatuko da eta Komunikazio arloan lan egiteko C2 maila.